



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 5koa,

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Amorebieta-Etxanoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2021eko ekainaren 25ean, Amorebieta-Etxanoko Udalak Amorebieta-Etxanoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoari ekiteko eskabidea egin zuen Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi ziren; tartean, planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikuluetan eta Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan.

Halaber, Amorebieta-Etxanoko Udalak eskatu zuen baliozkotzat jotzeko Amorebieta-Etxanoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruan egindako administrazio-izapideak (EAED-017 espediente), zeinarekin loturik Ingurumen Administrazioaren zuzendariak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman baitzuen 2016ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez.

Aurkeztutako eskaera aztertu ondoren, ondorioztatu dugu ingurumen-organo honek ez duela eragozpenik, 2016ko uztailaren 21eko EAED-017 espedientearen esparruan ingurumen-organoak eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidea kontserbatzeko eta espediente berri honetan sartzeko. Tramite hau da abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoa.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorrita hala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluekin, nola urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikuluen arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokiak aukeratu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar



zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) letran jasotako planei lotuta, eta Amorebieta-Etxanoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra dago plan horien artean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari buruzkoak, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, erreferentziazko dokumentuaren edukari eta ingurumen-jasangarritasun txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Amorebieta-Etxanoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko (aurrerantzean, HAPO) ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua egitea, ingurumen-xedeetarako soilik, honela:

1.- Ebaluazio-prozesuaren xedea eta irismena

1999ko uztailaren onetsitako Arau Subsidiarioak dira Amorebieta-Etxanon indarrean dagoen hirigintza-plangintza. 2000ko uztailaren deklaratu zen Amorebieta-Etxanoko Arau Subsidiarioen egikaritzea, uztailaren 15eko 478/1999 onespren-aginduak etenda utzitako eremuetan.

HAPOaren helburu nagusia da udalerriko premia orokorrak asetzea, zeinak honako puntu hauetan laburbildu baitaitezke:

- Giza potentzialtasun guztiak garatzea ahalbidetzen duten azpiegiturak eta ekipamenduak lortzea: lana, aisia, joan-etorriak.
- Bizitegi-lurzorua antolatzea, udalerriko biztanleen beharrei erantzuteko.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzorua arautzea eta berrantolatzea, enpresa-eskari endogenoei behintzat erantzuteko, ezarpen berriak baztertu gabe.
- Kulturaren, ingurumenaren eta paisaiaren babesa.

Horretarako, helburu espezifiko hauek zehazten dira:

- Hiriguneko hiri-bilbearen kohesioa eta bete-lana.
- Hiria berroneratzea (Astepe, Tantorta, Montorra).
- Landaguneak egokitzea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritakora.

Garapen-irizpide gisa ezartzen da hazkundeak jasangarria izan behar duela; «hiri trinkoaren» eredua lortu nahi da, espazioak betez, hiri-bilbeari koherentzia emanez eta lurzoru berriak ahalik eta gutxien kolonizatuz.

Lurzoru urbanizaezinean, kontuan hartuko dira lurraldearen berezko ezaugarriak eta aplikatzekoak zaizkion lurralde-plan sektorialetako erregulazioa.

Ingurumen-helburu hauek ezartzen dira:

- Lurraldea modu orekatuan erabil dadin lortzea.
- Natura-baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea.
- Ingurunearen paisaia-kalitatea hobetzea.
- Biologia-dibertsitatearen galera geldiaraztea, habitaten eta ekosistemen funtzionamendua babestuz eta lehengoratzuz.
- Ur-masen egoera ona lortzea eta narriadura saihestea.
- Airearen kalitatea hobetzea eta berotegi-efektua eragiten duten emisioak murriztea.

Alternatibei dagokienez, aurkeztutako dokumentazioan adierazten da udalerriak eskaintzen dituen aukeren lehen hurbilketa partzialtzat hartu behar direla proposatutako alternatibak, baterako hausnarketarik egin gabe, eta ondorengo dokumentu eta faseetan balioetsiko direla –eta orduan proposatuko direla– beste hainbat auzi eta Amorebieta-Etxanorako okupazio globaleko zenbait eredu.

Alternatiben artean, lau okupazio-eremu berri planteatzen dira, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan jasotakoekin alderatuta. Horietako bi 2011ko uztailaren behin betiko onetsitako Durangaldeko Lurralde Plan Partzialean definitutako «okupazio-muga» eremuei dagozkie; bat erabilera mistorako da, hirugarren sektoreko bizitegi-erabilerarako, 120.000 m²-koa, eta bestea, berriz, industria-erabilerarako, 457.783 m²-koa; hirugarrena izan daiteke lehen mailako eraldaketarako 59.830 m²-ko eremua, eta laugarrena, azkenik, hiri-bilbean bi landagune sartzeari zehazki, Santa Luzia, 31.126 m²-koa, eta Leginetxe, 37.480 m²-koa. Planteatutako gainerako alternatibak bat datoz indarrean dauden Arau Subsidiarioetan garatu gabeko eremuekin edo, hainbat arrazoi tarteko, berriro aztertu beharrik eskatzen ez duten sektoreekin.

1. Bizitegi-alternatibak:

a) Indarrean dauden Arau Subsidiarioetako bizitegi-alternatibak, egikaritzeke daudenak: 13 zona, gehienak artifizializatuak.

- R-01 Barnetegi (UE-U) – Azalera: 7.745 m².
- R-02 Ugarte (UE-N) – Azalera: 20.715 m²
- R-03 Lopez jauregia (UE-W) – Azalera: 14.437 m²
- R-04 Karmen (UE-Karmen) – Azalera: 5.157 m²
- R-05 Bikandi (AA-11) – Azalera: 278 m²
- R-06 Harrison (UE-E) – Azalera: 1.406 m²
- R-07 Landeta (UE-T) – Azalera: 4.644 m²
- R-08 Betarragane (SAPU) – Azalera: 8.921 m²
- R-09 Kalbario (AA-14) – Azalera: 276 m²
- R-10 etxe-uharteko barrualdea (AA-13) – Azalera: 490 m²
- R-11 Nafarroa (2-3 poligonoak) – Azalera: 56.336 m²
- R-12 Larrea (AA-16) – Azalera: 1.985 m²
- R-13 Txiki Otaegi (AA-9) – Azalera: 359 m²

- b) Indarrean dauden Arau Subsidiarioetako bizitegi-alternatibak, egikaritzeke daudenak eta plangintza aztertu beharrekoak:
- Legarrebi (7.027 m² + 50.037 m²): gaur egun belardiak, baratzeak, baserriak eta aparkalekuak dituen lurzoru huts asko dago.
 - Ixer-Larrabide (12.558 m²): gaur egun aparkaleku batek okupatzen du neurri handi batean, gainerakoa, berriz, belardiek. Garaitondo erreka igarotzen da eremu horretan.
 - Santa Luzia (7.407 m²): zati bat artifizializatuta dago, landaguneetara eta zenbait eraikinetara sartzeko bideekin, baina baratze txikiak ere badaude.
- c) Bizitegi-erabilerara edo mistora alda daiteke: bizitegitarako hiri-bilbearen mugakide diren lau eremu ditu, eta Amorebieta-Etxanoko bizitegi-garapenerako alternatiba izan daitezke, lurzoru berriak okupatu beharrik gabe:
- Ogena (30.776 m²): gaur egun pabiloi industrialek, belardiek eta baratzeek okupatzen dute. Eremu horretako parte bat kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan dago sarturik.
 - Eremua (17.167 m²): gaur egun industria-hondakinak eta Batasunaren intereseko habitat gisa kartografiatutako larreak daude (6510). Eremu horrek Tantorta eta hirigunearen arteko lotura ahalbidetuko luke.
 - Santa Luzia (5.279 m²): industria-pabiloiek okupatzen dute gaur egun. Eremu horretako zati batzuk kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan daude sarturik.
 - Ametzarri (4.400 m²): gaur egun bi baserri daude industrialdeen eta Galdakaotik Amorebietara joateko errepidearen ondoan. Lurzoru urbanizaezina da.
- d) Lurralde Plan Partzialak erabilera mistoetarako proposatutako eremuak (bizitegiak eta jarduera ekonomikoak): Boroatik Amorebietako hirigunera sartzeko errepidearen eta autobidearen artean dagoen lurzoru urbanizaezina. Bi azpieremutan banatzen da: Tantorta (87.082 m²) mendebaldean, LIDL supermerkatua inguratuz, eta Ixer (31.070 m²) ekialdean. Gaur egun, gehienbat belardiek okupatzen dituzte, eta nabarmentzekoak dira balio estrategiko altuko lurzoruak eta San Pedro erreka haltzadia. Gainera, Ixer ibaiaren ekialdean igarotzen da Garaitondo erreka. Desegite-lantegi bat dago kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan, eta zarata-arazoak aurreikusten dira.
- e) Hiri-berroneratzeko bizitegi-eremuak: berroneratu beharreko 141.727 m²-ko azalera duten eremu finkatuak (birgaitzeak, igogailuak, agregazioak, handitzeak, erabilera mistoak, konektagarritasuna eta abar).
- f) Bizkaiko Foru Aldundiaren inbentarioan hiri-lurzoru gisa sartu ez diren landaguneak hiri-bilbean sartzeko aukera: Santa Luzia (31.126 m²) eta Leginetxe (37.480 m²) ETSren trenbidearen eta abiadura handiko trenaren trazaduraren artean daude. Gaur egun, nekazaritza-balio handiko lurrak dira, eta baserriak dituzten belardiek eta baratzeek okupatzen dituzte. Balizko arazo akustikoak aurreikusten dira.
2. Jarduera ekonomikoetarako alternatibak:
- a) Berrikusi beharreko lurzoru industrialak: Astepe industrialdea (43.188 m²), gaur egun finkatuta dagoena. Hirigintzako zehaztapenak berrikustea, birgaitze eta leheneratze-neurriak aurreikusteko.
- b) Garapen-plangintzarekin egikaritzeke dagoen lurzoru industrialak, berrikustekoa:
- Eubako industrialdea (II9, 103.214 m²-koa, eta UI10, 129.289 m²-koa). Horiek garatzeko ingurumen-baldintzatzaileak, besteak beste, ibaiertzeko landaredia eta uholde-arriskua dira.
 - San Antonioko Inbisa pabiloiaren ondoko sektorea (31.059 m²). Ibaizabal ibaiaren ondoko etxebizitza batzuk; kutsatuta egon daitezkeen lurzorua eta pabiloi zaharkitua eta

jarduerarik gabea. Uholde-arriskua eremu osoan, 10 eta 100 urteko errepikatze-denboratakoa.

- c) Garapen-plangintzarik gabe egikaritzeke dagoen lurzoru industrial, berrikustekoa: Arriagana (14,053 m²) gaur egun industria-jarduerak okupatzen dute eta Azpiegituren Sistema Orokor gisa indarrean dauden Arau Subsidiarioetan dago jasota.
 - d) Erabilera industrialerako lurralde-plan partzialaren eremua: 457.783 m²-ko eremua, Boroako enpresa-parkearen eta Larrea auzoaren artean kokatua. Balio estrategiko altuko lurzoruak ditu.
 - e) Lehen eraldaketarako alternatiba: Montorra (59.830 m²) eremuan, AP-8 autobidearen eta N-634 errepideen artean. Lehen eraldaketako jarduera ekonomikoetarako proposatzen da, nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza-sektoreari lotuta. Gaur egun, baserriek, belardiek eta beste labore atlantiko batzuek okupatzen dute, eta balio estrategiko altuko lurzoruak ditu.
 - f) Hirugarren sektorea eta zerbitzuak, egikaritzeke:
 - Aldekoena eremua (Gane) (13.180 m²): gaur egun baratzeak, belardiak eta zuhaitzi interesgarriak daude. Uholde-orbanak eraginda, 100 urteko errepikatze-denborarako.
 - Tantorta eremua (22.331 m²), LIDL supermerkatuaren parean: gaur egun, belardi, haltzadi eta heskai autoktonoek okupatua. Eremu horretatik igarotzen da San Pedro erreka, partzialki estalirik. Kutsatuta egon daitezkeen zenbait lur hauteman dira.
3. Zuzkidura-erabileretarako alternatibak: Ganeke parkea (20.008 m²), indarrean dauden Arau Subsidiarioetan sartuta, espazio libreen sistema orokor gisa. Gaur egun, zuhaitzak dituzten belardiak eta harizti txiki bat daude, eta balio estrategiko altuko lurzoruak ditu.
4. Komunikazio-alternatibak:
- a) Gurpilduna edo oinezkoak/bizikletak. Hona hemen esanguratsuenak:
 - AP-8 autobidearen hirugarren erreia zabaltzetik eratorriak
 - o Lotura alternatiboa Larrearekin
 - o AP-8 gaineko biaduktua erretiratzea (Gernika eta Karmen ingurua lotzekoa), eta Karmen kaleko sestrak erregularizatzea
 - o Lotura-plataforma Urritxerekin
 - Auzoen arteko loturak
 - o Betarragane eta Karmen kalea lotzea
 - o Zubipunte eta Zubizabala arteko lotura
 - Sestak erregularizatzea San Migel kalean
 - Oinezkoen eta bidegorrien sarea osatzea:
 - o Landaguneekin lotzea
 - o Industria-eremuekin lotzea
 - o Oinezkoen espaloiak sortzea, hala nola San Pedro kalea eta Bidezahar
 - o Bidegorrien sarea osatzea
 - o Bideak berroneratzea lurzoru urbanizaezinean
 - b) Trenbide-sarea – egikaritzeke, berrikusi beharrekoa: 25.509 m²-ko eremua, Arau Subsidiarioetan salgai-geltokien erreserbarako trenbide-sistema orokor gisa kalifikatzen dena. Gaur egun, balio estrategiko altuko larreak daude, urpean geratzeko arriskua dutenak 10, 100 eta 500 urteko aldietan. Euskotrenen kontsultaren zain.
 - c) Trenbide-sarea – Moteltze-alternatiba: abiadura moteltzea eta hiri-tratamendua hobetzea (geralekuak, trenbide-pasaguneak, eraikuntza-fronteak eta ibai-ibilguak hobetzea, trenbideen tratamendua).

d) Trenbide-sarea – Lurperatzeko alternatiba: epe ertain-luzerako proposamena.

5. Alternatiba bereziak:

Berregituraketa-ardatza (N-634):

- Galdakaorantz: N-634 errepidearen eta AP-8 autobidearen arteko azalerak eta jarduerak berrikustea, antolamendu koherente eta bateratua zehazteko.
- Durangorantz: espazio hutsak osatzea, jarduerak eta baldintzak birdefinitzea eta abar. Elementu ugari arautzeko irizpideak, poligonoetarako sarbideak, landaguneak, lurzoru urbanizaezineko jarduerak eta abar.

Lurzoru urbanizaezinaren kasuan, kategoria hauek aurreikusten dira:

- Babes Berezia
 - o Urdaibaiko Erreserba Biosfera
 - o Urkiolako Parke Naturala babes bereziko eremua
 - o Babes berezia: Espezie autoktonoen basoak edo antzekoak
- Basogintza
- Nekazaritzakoa nahiz abeltzaintzakoa eta landazabalekoa
 - o Nekazaritza eta abeltzaintza, balio estrategiko altua
 - o Nekazaritza-abeltzaintza: trantsizioko landa-paisaia
- Ingurumen-hobekuntza
 - o Ingurumena hobetzeko eremuak
- Urak babestea
 - o Lurrazaleko urak babestea
 - o Urak hartzea/babes-perimetra

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020koaren helburu estrategikoak eta jarduketako-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak hartuko dira kontuan.

Zehazki, plana zuzentzeko, garapen jasagarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializaturik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala ez dadin urbanizatu.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun induzitua saihestea eta irisgarritasuna garatzea, lurzoru-erabilerak eta mugikortasunak modu integratuan planifikatuz eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitata eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Paisaia- eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasagarria ere.
- h) Baliabide naturalen kontsumo jasagarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.

- i) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko neurriak eta aldaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak gutxitzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragilean nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jardura indartuta.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoak aztertu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipaturiko garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatutako ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak

HAPOaren lurralde-eremua Amorebieta-Etxano udalerri osoa da; 58,46 km²-ko azalera eta 19.119 biztanle ditu.

- Udalerraren ezaugarri nagusia topografia uhindua da, eta % 30-50 bitarteko pendizak dira nagusi. Eremu lauenak, % 10etik beherako pendizekin, eta Ibaizabal ibaiaren ibilguko udalerraren erdialdean daude nagusiki.
- Balio estrategiko handiko lurzoruak, batez ere, Ibaizabal ibarrean daude, hirigintza-garapenek okupatu gabeko lurretan.
- Amorebieta-Etxanoko sare hidrografikoa Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikokoa da, eta, zatirik handienez, Ibaizabal unitate hidrologikokoa. Hala ere, udalerraren ipar-ekialdean dagoen eremu txiki batek Oka ibaiaren unitate hidrologikora isurtzen ditu urak. Ibaizabal ibaia da udalerraren ibilgu nagusia, hego-ekialdeko mugatik sartzten da eta ipar-mendebaldetik irteten. Garaitondo, Bekoerreka, San Martin, Errekatsu, Ugaran, Arkotxerota, Iztegi, Naruerreka, Leginetxe eta Orobio (Orobio) dira beste ibilgu aipagarri batzuk.
- EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera, osagai hidraulikoa kontuan hartuta, Ibaizabalen zatia, udalerrian sartzten denetik San Antonio auzoraino, III. mailakoa da, 100 eta 200 km² arteko arro-azalera du, eta puntu horretatik aurrera IV. mailakoa da —hau da, 200 eta 400 km² arteko arro-azalerarekin—. Orobio eta Garaitondo errekek 1. mailakoak dira, 10 eta 50 km²-ko ibaiadar-arroa, eta gainerako ur-ibilguak, berriz, 0 edo 00 mailakoak dira, 1 eta 10 km² arteko ibaiadar-arroarekin eta 1 km²-tik beherako arroekin, hurrenez hurren. Ingurumen-osagaiari dagokionez, ondo kontserbatutako landaredia duten Ibaizabaleko zenbait zati identifikatzen dira, eta beste batzuk leheneratu beharreko eremuak dira. Oka ibaiaren arroa drainatzen duen ibai-sistema interes naturalistiko lehenetsikotzat jotzen da.
- Ibaizabal ibaiaren alubioi-lautada; beraz, Amorebieta-Etxanoko hirigunearen zati handi bat interes hidrogeologikoko kokaleku edo guneetan dago. Udalerraren ipar-ekialdean eta hego-mendebaldean ere badaude era horretako eremuak.
- Intereseko landarediari dagokionez, udalerraren hego-mendebaldeko mugan Batasunaren intereseko habitat hauek kartografiatu ziren: mendi-hegaletako basoak, luiziak edo osinak *Tilio-Acerion* espeziearekin(9180*), larre lehor erdi-naturalak eta sastrakadiak kareharrizko substratuen gainean (*Festuco-Brometalia*) (*orkidea nabarmenak dituzten inguruak) (6210), txilardi oromediterraneo endemikoak otearekin (4090), pendiz harritsu kaltzikolak landaredi kasmofitikoarekin (8210) eta txilardi lehor europarrak (4030). Udalerraren iparraldean, txilardi lehor europarrak, larre harritsu kaltzikolak (6170) eta *Molinia* belardiak kare-, zohikatz- edo buztin/limo-lurzoruarekin (*Molinia caerulea*) (6410). Ibaizabalen ibarrean, ugari dira altitude txikiko sega-belardi pobreak, eta, neurri txikiagoan, txilardi lehor europarrak —ugariagoak ibarraren hegaletan—. Ibaizabalen ertzean eta Orobio, Arkotxerota, Bekoerreka eta Garatondoko arroetan *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion*, *Alnus incanae*, *Salicion albae*) espezieetako baso alubialak kartografiatu dira (91E0*).

Udalerriaren hego-ekialdean, *Prunus lusitanica* espeziearen kontserbazio-eremua nabarmentzen da, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan bildua, galzorian kategorian. Udal-mugartean, gainera, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan bilduriko beste zortzi flora-espezie ageri dira: *Dryopteris aemula* (arraroa), *Menyanthes trifoliata* (galzorian), *Narcissus bulbocodium* (interes berezikoa), *Ophioglossum vulgatum* (arraroa), *Pinguicula lusitánica* (arraroa), *Sorbus latifolia* (kaltebera), *Vandenboschia speciosa* (kaltebera) eta *Woodwardia radicans* (kaltebera).

Nabarmentzekoa da, halaber, harizti-baso misto atlantikoko baso autoktonoen presentzia (udal-mugartearen % 4,26).

- Intereseko faunari dagokionez, aipatu behar da litekeena dela Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa bildutako espezieak izatea udalerrian, zehazki, galzorian dauden hiru espezie (*Austropotamobius pallipes*, *Mustela lutreola* eta *Gypaetus barbatus*); halaber, hiru espezie kaltebera (*Triturus alpestris*, *Aquila crysaetos* eta *Neophron pernopterus*), zazpi espezie bitxi eta interes bereziko 18 espezie, baita hainbat kategoriatan bilduriko 23 kiroptero-espezie mehatxatu ere.
Bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremutat jotzen dira Orobio erreka eta haren ibaiadarrak, Zubitxu erreka eta Ibaizabalera udalerriko ipar-mendebaldeko muturrean isurtzen duten errekaetako sarea. Udalerriko gainerako ibai-sarea espeziea hobetzeko tartetzat hartzen da. Ugatzak, sai arreak eta sai zuriak *Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko plan bateratua* dute. Plan honen udalerriko aplikazio-eremuak Urkiolako Parke Naturala du ardatz.
- Udal-mugartearen hegoaldean, EAEko hezeguneen inbentarioan sartutako Belatxikietako zingirak (B1B12_(01-02) kodea) eta Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala (III. taldea) ageri dira.
- Udalerrian interes geologikoko 14 eremu eta lau puntu identifikatzen dira, eta horietako bat bera ere ez da sartzen Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan.
- Udalerriaren hego-mendebaldeko muga bat dator Natura 2000 Sareko Urkiola Kontserbazio Bereziko Eremuarekin (ES2130009) eta Urkiolako Parke Naturalarekin (ES210002); horri dagokionez, adierazi behar da otsailaren 26ko 27/2019 Dekretuaren bidez onartzen dela Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zati arautzailea, eta antolatu egiten dela Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Bigarren Planaren eta Urkiolako Parke Naturaleko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko kudeaketa-jarraibideen eta -jardueren dokumentuaren argitalpen osoa. Gainera, Urkiola EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogoan dago sartuta (20. kodea). Udalerriaren ipar-ekialdeko muga, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren (ES213001) eta Urdaibaiko Ibai Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (ES2130006) eremu txiki bat dago.
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zehazten den azpiegitura berdearen arabera, udalerriaren ipar-mendebaldera doaz Urdaibai eta Salbada mendilerroa, Gorbeia eta Armañon lotzen dituzten korridore ekologikoak, eta, haren hego-ekialdean, Urdaibai eta Urkiola lotzen dituen korridorea.
- EAEko korridore ekologikoen sareak konektagarritasun-interes bereziko ibai-tartetzat ditu Betzuen, Berna, Untzebieta eta Orobio. Horiek guztiak Ibaizabalera isurtzen dituzte urak, Orobioetik barrena, zeina udalerriaren hego-ekialdeko mugatik igarotzen baita, lurretako mugatik. Halaber, udalerriaren hego-ekialdeko muga Urkiola eta Urdaibaiko artadi kantaauriarrak lotzeko korridorea eta haren motelgunea daude.
- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroak barnean hartzen ditu, besteak beste, hiri-hornidurako hainbat bilketa-gune, haletako gehienak Ibaizabal iparraldean, mantenugaien ekarpenarekiko sentikorrek diren eremuetako bilketa-eremuak (Oka ibaiaren arroko udalerriko eremua), urari lotutako Natura 2000 Sareko espazioak (Urkiolako Kontserbazio Bereziko Eremua eta Urdaibaiko Ibai Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua), Urkiolako Parke Naturala eta Urdaibai Biosfera Erreserba.
- Udalerrian onura publikoko hainbat mendi daude, gehienak hego-mendebaldeko muturrean, bai eta beste batzuk ere ekialdeko muga.
- Paisaiari dagokionez, udalerrian ipar-iparreko erdia Amorebietako ikus-arroan dago, eta hegoaldekoa, ostera, Eubakoan; biak ere oso egunerokotzat eta paisaia-balio txikikotzat jotzen dira. Bietako bat ere ez da sartzen EAEko Paisaia Apartekoaren Katalogoan.

- Udalerrian, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzatie inbentarioan jasotako 180 kokaleku identifikatu dira guztira; industria-jarduerak, betelanak edo zaborteak dira.
- Amorebieta, Euba eta Astepeko herriguneez eta Zubieta industrialdeak uholde-arriskua dute. Ibaizabalen uholde-lautadaren zatirik handiena 500 urteko errepikatze-denboraren eraginpean dago, baina badira 10 eta 100 urteko errepikatze-denboratako uholde-arriskua duten eremuak ere. Ibaizabal ibaia, hirigunetik igarotzean, UAHE ES017-BIZ-9-2 Ibaizabal ibaiaren eremuan sartzen da (I. taldea). Garaitondo eta San Martin ibilguen ertzeak ere urak hartzeko arriskua dute.
- Oro har, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun txikia edo oso txikia du udalerriak; hala ere, oso kalteberatasun handiko lurzoruak daude hego-mendebaldeko muturrean.
- Hauek dira udalerriko zarata-foku nagusiak: garraio-azpiegiturak, AP-8 autobidea eta N-634 errepidea, udalerria ipar-ekialdetik hego-ekialderantz zeharkatzen dutenak; BI-635 errepidea, ipar-hegoalderantz; eta ETSren Irun-Bilbo trenbidea. Bizkaiko errepideen zarata-mapa estrategikoen arabera (2018), udalerrien zati bat errepide horien zortasun akustikoko eremuaren eraginpean dago. Amorebieta-Etxanok badu zarata-inpaktua ebaluatzeko plana (2006). 2011n, Betarragane eta Arreibi sektoreak Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatu ziren, eta bi sektoreotako Zonako Plana onartu zen.

4. Eremu desegokiak jarduketak egiteko

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak.

Ingurune fisikoan ondorio esanguratsuak dituzten jarduketak kokatzeko eremu desegokitzen joko dira aurreko apartatuan jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Era berean, printzipioz, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko eta/edo hots-kutsadurak eragindako eremuetako hirigintza-garapen berriak.

Jasotako txosten batean adierazitakoaren ildotik, nabarmendu behar da proposatutako aukeretak bat, Leginetxe landagunekoa, bat datorrela *Prunus lusitanica*ren kontserbazio-gunearekin. Gune hori HAPOaren hiri-bilbean sartzeko proposatu da. Berritua hartu beharko da kontuan aukera hura eta aztertu arriskuan dagoen landarediaren gaineko eragina.

Era berean, kontuan hartu behar da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) eragiten diola *Mustela lutreola* bisoi europarra kudeatzeko planari; hortaz, kontuan hartu beharko da zer jasotzen duen Bizkaiko kudeaketa plan horrek espeziearentzat interes berezia duten eremuei buruz. HAPOak bermatu beharko du espezie horien habitata zaintzen, mantentzen eta berreskuratzen direla.

Adierazi behar da, halaber, udalerrien zati bat Urkiolako Parke Naturalaren zati dela, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren zati, eta bertan ageri direla, besteak beste, Batasunaren intereseko hainbat habitat, mehatxatutako flora- eta fauna-espezieak, balio estrategiko altuko lurzorua, eta abar. Horri dagokionez, hirigintza-plangintzak naturagunak arautzen dituzten araudiekin bat etorri beharko du (besteak beste, Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalak Antolatze Plan, Urdaibaiko Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana...), bai eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialarekin ere. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Hasierako dokumentu estrategikoan jasotakoaren arabera, eremuan badira kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak eta, historikoki, zenbait lursail hartu izan dituzte; hortaz, baliteke lursail horiek arriskutsuak izatea etorkizuneko erabiltzaileentzat edota ingurumenarentzat. Kontuan izan behar dira 4/2015 Legearen estipulazioak (4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa).

Halaber, hasierako dokumentuak jasotzen duenez, azpimarratu behar da uholde-arriskuagatik eraikitzeko gune txar asko daudela ibaitik gertuko eremuetan eta Mugarra magalaren aldeko eremuetan, non mendimazelen ezegonkortasun-arriskuak baitaude. Kontuan hartu behar da planteatutako aukeretak bat garatzerakoan. Nolanahi ere, planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du

honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuak aldatua); eta Kantauri Ekialdeko Mugape hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoa berrikusteko araudiaren (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 40. artikulutik 42.era artekoak.

Ingurunekeo zaratari dagokionez, hasierako dokumentuak ezartzen du garraio azpiegiturak eta industria-instalazioak direla zaratagune nagusiak. Ingurumen-azterketa estrategikoak bermatu beharko du betetzen direla 213/2013 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa). Etorbizunean ezin izango da egin hirigintza-garapenik kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

Natura-ondareari dagokionez:

- Amorebieta-Etxanoko HAPOak eremu babestuen mugaketa jaso behar du, zehazki, Urkiolako Kontserbazio Bereziko Eremuarena, Urdaibaiko Biosfera Erreserbarena eta Urdaibaiko Ibai Sarearena, eta haien tresna espezifikoetara bideratu behar du horietan aplikatu beharreko araudia, horiek deklaratzeko aintzat hartu diren elementuak babesten direla bermatzeko.
- Lurzoru Urbanizaezinaren Babes Berezia kategoriaren barruan sartu behar dira Batasuneko lehentasunezko habitat naturalak (*Alnus glutinosa* eta *Faxinus excelsior* espezieen alubioi-basoak, 91E0*, eta kareharrizko itsaslabarretako baso mistoak, 91B0*), bai eta udalerrian dauden baso-masa autoktonoak ere, eta saihestekoak izango dira garapenak balio naturalistiko handiko eremu horietan.
- Proposatutako alternatiben ondorioz landaredi interesgarrian sortzen diren inpaktuen irismena eta neurria kuantifikatu beharko dira.
- Ingurumen-azterlan estrategikoak balioetsi behar du proposatutako alternatibek azkenean zer eragin duten mehatxatutako floran, eta bermatu behar du kalifikazio eta erabilera-araubide egokia izango dutela mehatxatutako flora-aleak edo -populazioak dauden lursailetarako. Horri dagokionez, gainjarritako baldintza espezifiko bat sartu eta kautelazko neurriak ezarri beharko lirateke, lurraldearen erabilera-aldaketa orok kontuan har dezan haien balizko presentzia. Zehazki, *Prunus lusitanica*ren kasuan, espezie horren kontserbazio-eremu gisa definitu dira Leginetxe erreka, haren ibaiadarrak eta ingurua, eta, beraz, gainjarritako baldintzatzaile gisa sartu beharko litzateke. Horretaz gainera, erreka inguruan badira beste espezie mehatxatu batzuen arrastoak ere. Horri dagokionez, ez da gomendatzen Leginetxe landagunea proposatuta bezala birsailkatzea, HAPOaren hiri-bilbean sar dadin.
- Ingurumen-azterlan estrategikoak azterketa bat egin beharko du udalerrian dauden fauna-espezie mehatxatuen gaineko eraginen irismenari eta garrantziari buruz. Bisoi europarraren kasu zehatzean, espeziearen kudeaketa-planak adierazitakoa bete beharko da, eta saihestekoa izango da haren habitata aldatzea. Ildo horretan, Udalak nahitaezko txostena egiteko eskatu behar dio Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari. Era berean, balioetsi behar da proposamenek zer eragin duten udalerrian detektatutako eta babes bereziko araubideko espezieen zerrendan jasota dauden beste hegazti-espezie batzuen habiagune eta habitatetan (zapelatza, gabiraia, urubi arrunta eta hontz arrunta).

- Urbanizazio berrien obretan nahitaez bete beharreko baldintzak sartu behar dira, ahalik eta gutxien sor daitezen flora inbaditzaileko espezieen foku berriak.
- EAEko Korridore Ekologikoen Sarearekin bat dator Amorebieta-Etxanoko udalerriaren zati bat. Ildo horretan, gainjarritako baldintza espezifiko baten barruan egon beharko lukete sare horren egitura-elementuak eta horiek moteltzeko eremuek. Gainera, komunikazio-azpiegiturak bat egiten duten eremua (A-8, N634) kritikotzat jotzen da lotura ekologikoaren ikuspegitik, eta, beraz, komenigarria litzateke HAPOak bere aurreikuspenetan konektagarritasun ekologikoko plan berezi bat egitea txertatzea, udalerrian komunikazio-azpiegiturak eta urbanizazio-elementuak metatzearen ondorioz sortutako hesia ezabatzeko edo murrizteko.
- Gomendatzen da udalerriko paisaia-balio handieneko eremuak aztertzea eta horiek babesteko neurriak hartzea.

Bitarteko hidrikoari dagokionez:

- Ingurumen-azterketa estrategikoan atal bat sartu beharko da, azkenean hautatutako proposamenak ingurune hidrikoan duen eragina aztertzeko.
- Jabari publiko hidraulikoko ibilguekin gurutzatzen edo mugatzen diren eremuen etorkizuneko antolamenduen kasuan, beharrezkoa izango da horiei lotutako baldintza naturalen eta ibaiertzeko landaretzaren kontserbazioa sartzeara. Era berean, zortasun-eremua, besteak beste, oinezkoen pasabide publikorako eta zaintza-zerbitzuen garapenerako gorde behar da, eta, oro har, ezin izango da altxatu inolako eraikuntzarik, nola eta ez den komenigarria edo beharrezkoa jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko edo hura kontserbatzeko eta lehengoratzeko.
- Udalerrian urpean gera daitezkeen eremuak daudela kontuan hartuta, HAPOak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du jabari publikoko zaintza-eremuan urpean gera daitezkeen erabileren mugekin. Muga horiek Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 9. artikuluan daude ezarrita (apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuak aldatua), baita Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoa onartzen duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren 40. artikuluan eta hurrengoetan ere. Horretaz gainera, aipaturiko errege-dekretu horren 44.1 artikuluan adierazitakoarekin bat, urbanizatu beharreko eremu berriek etendako arroetan drainadura gehiegi alda ez dadin, drainatze jasagarriko sistemak sartu beharko dira (zolatadura iragazkorak eta abar).
- Aurreko puntuari dagokionez, adierazi behar da lehentasunezko fluxu-eremuetan ez dela baimentzen hustubide-ahalmena nabarmen murriztea eragiten duen jarduerarik, ezta uholdeen aurrean kalteberak diren erabilerarik ere. Era berean, eremu urbanizatu berriak lehentasunezko fluxu-eremu horretatik kanpo kokatu behar dira, oro har; erabilera kalteberak, berriz, 500 urteko errepikatze-denborako uraldiak iritsi ezin daitezkeen kotan ipini behar dira.
- HAPOak uholde-arriskuaren baldintza jaso beharko du garatu beharreko eremuen hirigintza-fitxa bakoitzean, hala badagokio, eta argi eta garbi adierazi beharko ditu eremu bakoitzaren garapen-baldintzak.
- Beharrezkoa da lurzoru urbanizaezina babesteko kategorien artean lurrazaleko uren babesa sartzeara, eta Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialari jarraitu beharko zaio udal-mugartean barrena igarotzen diren ibilguen ertzetako erabilerak arautzeko.
- Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren gomendioekin bat etorritik, Belatxikietako zingirak babes bereziko kategoriararen barruan jaso beharko lirateke HAPOan.

Lurzoru agrologikoari dagokionez:

- Beharrezkotzat jotzen da Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean ezarritako eta 46. artikuluan definitutako kategoriak HAPOko Lurzoru Urbanizaezinaren zonakatzeari gehitzea. Berariaz jaso behar ditu, gainera, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurzoru Urbanizaezinen eta Balio Estrategiko Handiko Landazabalen mugaketa eta arautegia (Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean jasoak).

Kultura-ondareari dagokionez:

- Kultura Ondarearen Zentroaren katalogoetan jasotako interes kulturalako elementuen zerrenda jasotzen da –interes historiko-arkitektonikoko elementu eta interes arkeologikoko elementu gisa sailkatuak–.
- Plan Orokorren araudian eta, zehazki, hirigintza-aurreikuspenetan ez ezik, udal-katalogoa egitean ere kontuan har daitezten, lege-babesa duten elementuak babesteko legezko preskripzioak adierazten dira, bai eta babes-proposamenen bat duten elementuetarako egiten diren xedapen orokorrak ere –Amorebieta-Etxanoko kultura-ondarearen sektore-analisiak egin ondoren, babes-proposamena jasotzen dutenak, alegia–.
- Udal-katalogoan jasotako elementuen fitxa berezituak sartzea gomendatzen da, kokapen planimetrico eta grafikoarekin, deskribapenarekin, babes-mailarekin eta babes-araubidearekin.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoak aldatzen dituzte. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako ondorio espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko eraginak honako hauek izango dira soilik: planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da halaber planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, azterlana) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalen eta xeheen; honako hauek, zehazki:

6.1. Planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

- a. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da HAPOarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, azterlanak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.
- b. Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gainetik dauden plan edo programen onespenez egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.
- c. Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.
- d. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zehaztuta zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuta.
- e. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (erkidegokoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- 27/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez onartzen baita Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zati arautzailea, eta agintzen baita osorik argitaratzea Urkiolako Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana eta bertako kudeaketa-jarraibideen eta -jardunen dokumentua (ES2130009).
- 139/2016 Dekretua, irailaren 27koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duena.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen zonei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana.
- 1432/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 29koa, abifauna goi-tentsioko linea elektrikoaren talken eta elektrokuzioaren aurka babesteko neurriak ezartzen dituen, eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua. Horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira, argitaratzen.

- Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. eta 31.4 artikulua.
- EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua eta hurrengoak.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako alternatiben bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Antolamendua aldatzen den esparru/azpiesparru guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, ekarpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Azterlanak HAPOaren helburu nagusien laburpen txiki bat jaso beharko du, eta era berean, xehetasun osoz deskribatu beharko ditu Planean txertatutako proposamen, aldaketa edo xehakapen berriei lotutako ekintzak –aldaketa edota xehakapen horiek eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamendua oinarri hartuta bereiziko dira, betiere ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete–; horretaz gainera, eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak hartuko dira kontuan.

Ildo horretan, jarduketa-eremuetarako proposamen zehatzen definizioa jaso beharko du IAEk, HAPOaren aurrerapenean aurkeztzen diren jarduketa-alternatiba irekiak zehaztuta.

Era berean, lurzoru urbanizaezinaren antolamendua sartu beharko da IAEn. Antolamendu-kategoriak (hala badagokio, landaguneen mugaketa barne) eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

Ildo horretan, eta jasotako txostenen arabera, Belatxikietako Batasuneko lehentasuneko habitatei, baso-masa autoktonoei eta zingirei dagozkien eremuak sartu beharko lirateke Lurzoruaren Babes Berezikiko Eremuetan. Halaber, iradokitzen da Babes Berezi edo gainjarritako baldintzatzaile gisa kategorizatzea tokiko eremuko konektagarritasun ekologikoko sare bat, lotura-intereseko paisaiaren elementuak jasoko dituen, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerrokadura sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, istilak, etab.) eta harrizko hormatxoak; bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak xedatutakoarekin.

Gainera, gomendatzen da gainjarritako baldintzatzaile gisa sartzea bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) interes berezikiko eremuak diren ibai-ibilbideak; abifauna babesteko eremuak, goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan talka egiteko eta elektrokutatze arriskutik babesteko neurriak hartzea eskatzen dutenak; eta flora mehatxatuko espezieak aipatzen diren laukiak, baita Korridore Ekologikoen Sarearen egiturazko elementuak eta moteltze eremuak ere.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da. Zehazki, arreta berezia jarriko zaie hirigintza-garapen berriak, azpiegitura

berriak edo inguruneko eraldaketa nabarmenak eragin ditzaketen jardueri, baita lurzorua kutsa dezaketen jarduerak nozitzen edo nozitu dituzten lurzoruetan eragina dutenei ere.

Bestalde, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu IngAEk, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketaren kokapena, *pdf* (UTM koordinatuz geoerreferentziatuta egon beharko dute) eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko da zer aukera ezberdin hartu den kontuan plana formulatzeko prozesuan. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera edo esku ez hartzeko aukera ere hartuko da kontuan; kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat jasoko da adierazteko zergatik baztertu diren plangintza-aukera batzuk eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako aukera.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2 Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea.

Azterlanak deskribatu beharko du zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota. Lurzoru motari dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da, hala nola ibai-ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko tokiak, korridore ekologikoak, etab. Egungo elementuek duten kontserbazio-egoerari, interes-mailari, kalteberatasunari, presioei eta egungo mehatxuei buruzko datuak emango dira, Plana gauzatzean areagotu baitaitezke.

Hasierako dokumentu estrategikoak Amorebieta-Etxano udalerriaren ezaugarri nagusien laburpen bat jasotzen du, zeina, oro har, egokitzen hartu baita natura-ondarearen alderdiei dagokienez; hala ere, zenbait datu zehaztu beharko dira, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotakoen artean.

c. Paisaia. Paisaia-pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

Alde horretatik, kultura-ondasunen babes zehazteko, kontuan izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako irizpideak, txostenean adieraziak.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari

buruzko alderdiak, irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasan dezaketen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Atal hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen eta urak hartu ditzakeen eremuen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012 Dekretua) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterlanak bereziki jorratu beharko du jarduketa-proposamen berriei eta planak indarrean dagoen antolamenduan egindako aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketaren eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

Zehaztuko da, hala dagokionean, hautemandako ondorioak eraginik sortzen ote duen Natura 2000 Sareko lekuetan eta 6.2.1.b apartatuan jasotako beste gune batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuetan.

Halaber, hala badagokio, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Aztertu beharko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenetan, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterketa hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, haiek ere aurkeztu beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.
- Azterketan balioztatu beharko da proposatutako jarduerak bat ote datozen tokiko konektagarritasun ekologiko lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuarekin bat etorritik. Bereziki, kontuan hartuko da biodibertsitaterako garrantzi handiena duten naturaguneen arteko konektagarritasuna (naturagune babestuak, interes naturalistikoko eremuak, ur-ibilguak, landaredi autoktonoa duten eremuak, etab.), lotura-intereseko paisaiaren elementuen bidez lotuko direnak, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerroakadura sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, putzuak, etab.) eta harrizko hormatxoak.
- Garapen-eremuek ur-ibilgu, erribera eta ibaiertz guztien gainean izan dezaketen eragina aztertuko da, ibai-lurraldearen babesa lortze aldera, hau da, dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo berreskuratzeko adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta; egoera ekologiko ona betetzeko; uholdeak modu naturalean ijertzeko; ibai-paisaia hobetu eta sendotzeko, eta ibaiertzeko korridore jarraitua lortzeko.
- Bereziki ebaluatuko da bisoi europarraren interes bereziko eremu diren ibai-ibilbideetan egingo diren ukipenak.
- Eta balio agrologiko altuko lurzoruen ukipenak ere aztertuko dira.
- Era berean, aztertu beharko da zer eragin eta ondorio dituen HAPOak proposatutako antolamenduak Batasunaren intereseko habitatetan, espezie autoktonoen basoetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan. Ildo horretan, hirigintza-garapenak intereseko landaredian izan ditzaketen eraginaren azterketa zehatza egin beharko da. Zehazki:
 - Aukera-eremua: Boroako enpresa-parkearen eta Larrea auzoaren artean dago, eta Batasunaren intereseko 6510 altitude baxuko sega-belardi pobreekin eta 4030 txilardi lehor europarrekin bat egiten du, zeinetan harizti azidofilozko bi zuhaitzi eta birsortzeko prozesuan dagoen hostozabalen baso gazte bat baitaude.
 - Garatzeke dago indarrean dauden Arau Subsidiarioetako bizitegi-eremua, aurreko inguruan, eta bat dator Batasunaren lehentasunezko intereseko haltzadi kantauriarrarekin (91E0*).
 - Garapen-plangintzarekin egikaritzeke dagoen lurzoru industrial, berrikustekoa: Eubako industrialdea da, egikaritzeke dagoena, eta arazoa da Ibaizabal ibaiak zeharkatzen duela eta bat datorrela bertako landarediaren zenbait tarterekin, baita ibaiertzeko basoarekin ere (Batasunaren lehentasunezko intereseko habitata, haltzadi kantauriarra, 91E0*).
- Kontserbatu beharreko elementuen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira Urdaibaiko Biosfera Erreserban (ES213001) eta Urdaibaiko Ibai Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuan (ES2130006), Urkiolako Kontserbazio Bereziko Eremuan (ES2130009) eta intereseko beste espazio batzuetan. Balorazio hori egiteko, kontuan hartu beharko dira 6.2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-

egoera, presioak eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatzeko eta eraginaren neurriaren gainean egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

- Kutsatuta egon daitezkeen lekuetan indusketek eta lur-mugimenduek eragindako ondorioak aztertuko dira.
- Azterlanak proposatutako garapen-eremu bakoitzaren paisaia-eragina baloratu beharko du.
- Etorkizuneko hirigintza-garapenen kasuan, aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, indarreko araudian araututako metodologia erabiliko da, betiere ebaluatzen den antolamendu motara egokituta (egiturazkoa edo xehatua). Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten bada (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne) eta planak eremuaren antolamendu xehatua jasotzen badu, hirigintza- eta ingurumen-izapideetarako dagokion eragin akustikoaren azterlana sartu beharko da, dekretu horren 37. artikuluan aipatzen den edukiarekin.
- Azterlanak proposatutako garapen-eremu bakoitzaren paisaia-eragina baloratu beharko du.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurrak ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrik edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

Ahal den guztietan, efektuak edo ondoreak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio edo efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, saiaturik da lotzen plan edo programaren gerta litezkeen faseekin.

d. Adieraziko da ea detektatutako ondorioa ekarriko duen ekintza horrek eskatzen duen beste plan eta programa batzuetan sartzea laneko zehaztapenak, eta zehaztuko da kasu bakoitzean zein den eragindako planifikazio-tresna.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorio edo efektuak hierarkizatu egingo dira, haien garrantzi erlatiboa nabarmenduta.

6.4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, azterlanaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondoren kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusita dauden neurriak deskribatuko dira. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-

baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterlaneko 6.3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Berariazko neurriak, natura-ondarea eta konektagarritasun ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko eremuak babestekoak.

Alde horretatik, xehetasunez azalduko dira ebazpen honetan aipatutako gune eta espezie mehatxatuak babesteko arau eta planetan aurreikusitako babes-neurriak eta kontserbazio-jarduketak, betiere hautemandako balizko ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko aplikatu beharrekoak badira, hala badagokio.

- Neurri gehigarriak, nekazaritza-jarduera sustatzeko eta hobetzeko, balio estrategiko handiko lurzoruen galera orekatzeko, narriatutako eremuak berroneratuz, azpiegiturak hobetuz eta/edo Nekazaritza Lurren Funtzari lurzoru publikoak utziz.
- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri diren irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Ibai-ibilguen inguruan dauden garapen-eremuetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2015-2021 Plan Hidrologikoan ezarritakoa bete beharko da, Ibaiertzak eta ibai-korridorearen ekologia- eta paisaia-dibertsitatea eta -funtzionaltasuna laguntzen duten elementuak aldatzea eta artifizializatzea saihestuz eta, ahal den guztietan, lehengoratzeta, berreskuratzea eta hobetzea sustatuz.
- Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez, eta ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzoruen kalitateari buruzko adierazpena egiteari begira, plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.
- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Horretaz gainera, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatzeko eta saihesteko.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketa gaineko eragina

arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eboluzioa zaintzea, baita plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen eboluzioa ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek ebazpenaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, baita datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

6.6 Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren azterketaren 6.1.1. apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta/edo konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaitako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonek erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan (abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluko kontsulta-izapidean kontsultatuak):

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza (gaur egun, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza).
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioko Zuzendaritza Nagusia.
- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Ekologistak Martxan Bizkaia.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarteak.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/es_def/adjuntos/GUIA-presentacion-documentacion.pdf

Bigarrenena. – Amorebieta-Etxanoko udalari ebazpen hau jakinaraztea.

Hirugarrena. – Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 5a.

Director de Calidad Ambiental y Economía Circular
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria

Elektrokikoki sinatua/Fdo. electrónicamente: Javier Agirre Orcajo